MATRIZE SOZIOKULTURALA

Eztabaidako partehartzaileak:
Intz, Irati, Ainhoa, Maite, Garazi, Saioa eta Javi/Nahia/Ainhoa

Zer den kultura? galdera ona! Dena eta ezer ez...

Modu asko daude kultura zer den definitzeko edo deskribatzeko. Esaterako, oso ezaguna egin da izebergaren eredua (behean esteka, sakondu nahi izanez gero):



Iturria: http://opengecko.com/interculturalism/visualising-the-iceberg-model-of-culture/

The image by James Penstone is licensed under a Creative Commons Attribution-NonCommercial-ShareAlike 2.0 UK: England & Wales License.

Edo Saioak eskainitako Jose Inazio Basterretxearen definizioa: "*espazio geografiko jakin batean bizi den talde bateko partaideek konpartitzen duten ohitura-multzoa, aztura-piloa"* (Komunikazioaren eta Informazioaren oinarriak, UEU, 1997). Edo beste hainbat definizio, familiartekotasunak eta jatorriak duten eragina azpimarratzen dutenak.

Ikastaroko dinamizatzaileon oharra:

Guk bi sailkapen hartu ditugu kontuan:

- Alde batetik, Mª Dolores Julianok 1992an proposatu zuena eta ondoren garatzen joan garena. Sailkapen horren arabera, kultura ofiziala/instituzionala, masa-kultura eta kultura herrikoiak desberdindu behar dira. Eta kultura herrikoien ulerkeran Jesús Martín-Barberoren lanak asko lagundu digu.

- Beste aldetik, antropologia sozialeko ikerketetan erabiltzen den matrize soziokulturala.

> Hainbatek “intersekzionalitatea” deitu diote, hain zuzen ere uneotan asko erabiltzen ari den kontzeptua generoaren lanketan. Baina guk nahiago dugu “sekzioak” proposatu ordez, “kosmobisioak” hartzea kontuan. Kosmobisioei euskaraz “mundu-ikuskerak” ere esaten zaie. Ikuspegi honetan ez da beharrezkoa pertsona bakoitzaren ezaugarriak banan-banan sailkatzen ibiltzea (modu taxonomikoan) baina bai presente izatea badirela hainbat ezaugarri indar berezia dutenak gure baitan, mundua ulertzeko ditugun moduetan.

Horrek ez du esan nahi definizio bat beste bat baino hobea denik. Guri lagungarriak zaizkigu normalean jendearekin egiten dugun lanetan, praktikan alegia. Ezaugarri pilo bat jarriz gero, oso zaila da eztabaidatzea eta lantzea, eta ezaugarriak murriztuz gero, oso mugatuak sentitzen gara errealitatea ulertzeko.

Kultur aniztasuna maiz atzerriko jendearekin lotzen da. Hau da, jatorri desberdina duten ikasleei hizkuntza irakasteko erronka bezala. Baina ikasgelako errealitatea sakonki ulertzeko, matrize soziokulturalak aurreiritzien inguruko ideia gehiago ematen dizkigu.

Hau da, ikasgeletan kultur aniztasunaren trataera lantzen denean, gehienon joera jatorri geografiko desberdinetako ikasleak dauden geletan, beraien ohitura eta tradizioen inguruan hitz egitea izaten da. Honek ez luke horrela izan beharko. Pentsa, zenbaitetan “bi ikasle afrikarrek” ezaugarri beretsuak dituztelako uste ustela izaten dugu! Donostiako eta Usurbilgo ikasleak desberdin ikusten ditugu eta “latinoamerikarrak” zaku berean sartzen ditugu...

Era berean, gerta liteke urrunetik datorren ikasle batek eta hemengo beste batek kulturaren hainbat alderdi partekatzea. Oso nabarmena izaten da masa-kulturako elementu ugari partekatzea (globalizazioaren eraginez), edota kultura instituzionalarena (eskolaren eraginez); kultura herrikoietako elementuak ere parteka ditzakete, esaterako lan-kultura beretik datozelako (arrantzale-familiakoak direlako biak, adibidez).

Matrize sozio-kulturalaren kontzeptuaren arabera, pertsona orok txikitatik ezaugarri batzuk barneratzen ditugu arrazoi ezberdinengatik eta hauek guztiek gure mundua osatzen dute, edo gure "kosmobisioa". Era honetara, ulergarria da bi ikasle afrikarrek ez dituztela zergaitik ezaugarri berberak partekatu behar, eta askotan, kulturalki hitz eginda, hurbilago sentitzen dira Durangon bertan jaio den beste ikasle batekin, bere kontinente zein azal kolore bera duen gelakidearengatik baino. Gelan errealitate hau etengabe ikusten da, baina askotan ez gara gelditzen pentsatzera ea hori zergatik gerta litekeen.

Beraz, ikasleak euren artean erlazionatzeko orduan eta gizakiok orotara, besteekin identifikatuak sentitzen garenaren arabera, gerturatuko gara horiengana eta ez kulturalki eurekin erlazio gehiago edo gutxiago izanaren ondorioz. Edo, hobeto esanda, identifikazio kulturalak sortzen dira giza-harremanetan, identitate itxien mugak gainditzen dituztenak eta kolonizazio-harremanen ordez mestizajearenak eragiten dituztenak.

Bestalde, Manuel Montañések testuan honakoa aipatzen du: *Establecer mecánicamente diferencias grupales de acuerdo con determinados lazos consanguíneos, de parentesco o afinidad, o lugar de origen es excesivamente simple, que no sencillo. La realidad es más compleja, que no necesariamente más complicada*. Bertan kulturaren asimilazioaz mintzo da, dibertsitatean elkarbizitzearekin aldenduz. Bertan ere, irakur dezakegu nola ikaslego inmigrantea ez den konpaktua, nola guztiak ezin ditugun berdin taldekatu, euren erlazionatzeko moduak oso ezberdinak baitira. Bertan, Montañesek, arrazoi ezberdinengatik bateraratuak izan diren etorkin ezberdinen errealitate bat kontatzen du. Irakurritakoaren arabera, logikoena litzateke, hegoamerikarrak talde homogeneo bat eratzea, aldiz, ez zen hori gertatu, baizik eta taldekatzeak beste arrazoi batzuen arabera eman ziren, adibidez euren gaitasun ekonomikoarengatik.

Integrazioaren inguruan ere aipamen batzuk egiten dira. Kasu honetan, bakoitzak hartzen duen jarreraren arabera, (*A* posizioa edo *A ez* posizioa), egoera ezberdinak bereizten dira. Esan daiteke segregazio eta desberdintze kontzeptuak integraziotik urrentzen direla, asimilazioa eta akulturazioa ez bezala. Adibide moduan esango nuke, etxe berean bizi diren bi pertsona, etxe berean bizi direlako ez dutela zertan integratuta egonik bata bestearekin. Hau da, bat etxera sartzean besteak alde egiten badu, etxe berean bizi arren ez dago inongo integraziorik. Aniztasuna balio positibo gisa landu beharko litzateke, esklusio egoerak gaindituko baditugu, eta ez, eskolan askotan gertatzen den modura, arazo gisa (“lau etorkin ditut klasean, zer egingo dut, ai ama!!!” pentsatu beharrean, “talde homogeneo bat dut, zer egingo dut, ai ama!!!” pentsatzea, pobreagoa izango delako ikasgela zenbat eta berdinagoa izan).

Iristen direnen artean, gure artean, iritsi eta bertakoen artean, globalizazioaren baitan... nabarmen arrakalatzen gaituena klase identifikazioa da tamalez, ez besterik. Montañesek idazten duen bezala *"Pensar que el parentesco ha dejado paso a la meritocracia es una de las mejores falacias que la burguesía ha logrado vendernos".* Sekulako egia iruditu zait, fikzio hutsa baita egun gure gizartean saltzen digutena: pertsona orok bere izardiz eginiko esfortzuak direla zio bakan eta ezinbesteko amesturiko edozein egoeratara igarotzeko. Eta hori ez da gero errealitatearekin talka egindakoan bizi ohi duguna.

Gure ikasletako batzuk (12 urte) txangoetara ez dira etorri, beste batzuk iñauterietan ez dute parte hartuko, honelako erabakiek haurren arteko erlazioan eragina izan dezaketela uste duzu? ez duzu uste handitzen doazen heinean jatorriak eta jatorrizko kulturak pisu gehiago hartzen duela eta horrekin batera errazago zaiela jatorriaren arabareko ezaugarri amankomunak dituztenekin erlazionatzea?

Baliteke zuk aipatzen duzun egoerak pairatzea ikastetxeetan. Hala ere, kasu horretan hirugarren pertsona baten esku hartzea dagoela iruditzen zait. Baliteke 12 urteko ikaslea txangora joateko desiatzen egotea edo iñauterietako esperientzia behin bada ere probatzeko prest egotea, baina gurasoak, eta abar tarteko, baliteke beraien nahiak gauzatzeko aukerarik ez izatea. Neurri batean honelako erabakiek berain arteko erlazioan bereizitasunak egotea ekar dezakeelakoan nago. Handiagotzen diren heinean, beraien erabakiak hartzeko askatasun gehiago izan dezaketela iruditzen zait. Bakoitzak bere inguruaren eta pentsatzeko moduaren araberako tendentzietara joko

duelakoan nago

Matrize soziokulturala kontuan hartzen badugu, gauza bera esan daiteke genero bereizkeriaren inguruan, klase sozialagatiko bereizkeriaren inguruan (hau oso zabaldua dago eta gutxitan izaten dugu eztabaidagai), atxikipenagatiko bereizkeriaren inguruan (erlijioa dela, joera politikoa dela eta abar). Horregatik, arazo bakoitza modu isolatuan lantzea errore bat izan daiteke, bereizkeria eta bazterkeria berriak eragin ditzakegulako, edo batzuk murriztearren beste batzuk areagotu. Kultura eta kulturak zer diren hausnartzea lagungarria izan daiteke sortzen diren bazterkeriak ikuskera osatuago eta konplexuagoan lantzeko.

Ikastaroan izena ematearen arrazoietako bat orain dela lau urteko bizipen bat izan zen. Nire lehen ordezkapena zen institutu publiko batean eta neska marokoar bat zegoen nire frantseseko klasean. Nik aintzat hartu nuen Marokokoa zenez, frantses ezagutzak izango zituela, baina ez zen horrela izan. Horretaz aparte, Marokotik iritsi berria zen eta arabiera baino ez zekien, ez gaztelania, ez euskara, ez ingelesa… Izugarrizko erronka izan zen niretzat, izan ere, gure alfabetoa ere ez zekien. Nola edo hala moldatu nintzen, batez ere keinu eta argazkiekin, neskak ere bere partetik jarri zuen.

Errore bat da pentsatzea marokoarra izateagatik frantsesarekiko interesa edo ezagutza izango duela ikasleak. Izan ere, frantsesa marokoar askorentzat hizkuntza kolonizatzailea da, eta hortaz, blog-sarrerako etiopiarren ingeles ikaskuntzaren kasuan bezala, bestelako erresistentziak egon daitezke tartean, inkontzienteki horietako asko gainera.

Aurten ere beste erronka bat daukat, ijito bat klasean daukadalako. Bere kultura oso desberdina da, ijitoen balioak, bizitza ikusteko modua, etab. erabat desberdinak direlako.

Ijituen kasua bereziki gogorra da. Ijituak Euskal Herritik botatzeko lan handia egin da urte askotan. Gogoan dut, esaterako, Hernanin asko zirela eta haur ez-ijituok eurekin jolasten ginela, nahiz eta gurasoek ez jolasteko esan, edo nahiz eta oso bizi-balore desberdinak izan. Baina Udalaren erabakiz herritik bota zituzten, bide bazterretara, oso bizi-baldintza gogorretan. Orain, euren populazioa oso murriztua dagoelarik, gainera eskola askotan "atzerritar" modura etiketatzen dira eta "integratu" behar dutela esaten da, gizarte hau beraiena ere izango ez balitz bezala. Eta gero Kaldereroen festa ospatzen dugu!

Egia da erraza dela begi bistakoak diren ezaugarriez baliatuz taldekatzeak egitea eta errealitatea hori baino konplexuagoa dela. Hau da, jendea bere jatorrikoak direnekin elkartzea errazena da, baina, beraiekin kultura berdina konpartituko ote dute? Talde desberdinetako kideak espazio berean biltzeak sortzen duen talde berria nola kudeatu? Horra hor buruhaustea.